



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko martxoaren 12a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, N-121-A eta NA-4400 errepideen arteko bidegurutzeari eta eskualde horretako beste errepide batzuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Donejakue bideko autobioako trafikoa neurtzeko sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Ezkanizko NA-2100 errepideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak Tuterako ekohiria ezartzearen aurkako iritzia eman duen. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Media Luna parkeko suhiltzaileen parkearen etorkizunari eta etorkizunean Alde Zaharrak eta Bigarren Zabalguneak izanen duten suhiltzaileen zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, N-121-A eraikitzeko lanetan aurreikusitako epeak, kontseilari andreak berreskurazintzat dituenak, bete ezin izateko arrazoi objektiboei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Euskarabideko Aholkularitza eta Ikerketarako Zerbitzuko zuzendaria kargutik kendu izanaren arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Eskola Kontseiluko zuzendari Ángel Urtasun jauna kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Iruña-Tafalla-Castejón-Tutera eskualdeko tren zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Aragón ibaitik eta Villafrancako Europar Batasunaren Intereseko Lekutik gertu dagoen arroaren kutsadura arriskuari buruz, ondoko lursailean hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Villafrancako hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz ireki diren zehapen-espeditenteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Cascanteko kultur etxea eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Medea clusterraren deialdian Nafarroako proiektuek parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Galdera, IKTen Hiria proiektuaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresek eduki digitalen garapenarekin lotuta aurkeztu dituzten proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Industria Ministerioak antolatutako finantzaketaren babesean eduki digitalen proiektuetarako laguntzak eskatu dituzten irabazi asmorik gabeko entitateei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak bere asmoak aldatu behar dituen, IKT maileguei, gazteentzako eta unibertsitarioentzako maileguei eta herritartasun digitalerako maileguei dagokienez. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, irabazi asmorik gabeko entitateek, eduki digitalen azpiprograman, eta toki entitateek ezagutzazentzako sortzeko aurkeztutako eskaerei eta horien xedeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Iberdrolak Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen ematen duen zerbitzuaren kalitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, “Larraine-Villar de Arnedo” gasbidearen Irunberriko konpresio-estaziorako Enpresa zuzendari nagusiak emandako apirilaren 2ko 1173/2008 Ebazpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, satellite bidezko interneteko banda zabalak Nafarroa osoan estaldura izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak jakinarazi ote zien enpresei, toki entitateei eta irabazi asmorik gabeko entitateei IKTak landa eremuan sartzeko deialdi bat dagoela. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak ezarritako gastu publikoaren austeritate-neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “Ikastetxe berriak eraikitzea eta egokitzapen obrak egitea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, ikurren legearen aplikazioaren ondorioz udaletara bidalitako errekerimenduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka eraikitzeke lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko zer kontusailetan izanzen duen eragina aurrekontuen murrizketak. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Antzerki Sareari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, N-121-A eta NA-4400 errepideen arteko bidegurutzeari eta eskualde horretako beste errepide batzuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du N-121-A eta NA-4400 errepideen arteko bidegurutzeari eta eskualde horretako beste errepide batzuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Etxalar zeharkatzen duten errepideetan presaz egin beharreko lanei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1) Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak bi eratako jarduerak egin ohi ditu bide segurtasunaren arloan:

a) Jarduera handiak, izenez jasota daudenak 2002-2009 aldirako Errepideen II. Plan Zuzendarian.

b) Istripu ugariko tarteak kentzeko planetatik heldu diren jarduerak. Plan horiek, izan ere, istripuen kopuruari buruzko estatistika-azterlanetan oinarritzen dira. Planek aukera ematen dute, modu objektiboan, jardueretan lehentasunak ezartzeko, eta dauden baliabide publiko eskasak arrisku handiena duten errepide tarteetan aplikatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko errepideen sarea osatzen duten 4.000 kilometroetan.

N-121-A eta NA-4400 errepideen Etxalarko bidegurutzeari dagokionez –hori da galderaren xedea– honakoa azaldu beha dugu:

- N-121-A errepideko Sunbilla-Bera tartean –horrexetan baitago hizketa gai dugun bidegurutzea– 2007ko apirilaren 12tik hobekuntza lanetan ari dira. Aurreikusita dago 2009ko udan zerbitzuan jartzea. Aldaketa horrekin, galderaren xedeko bidegurutzea ia tokiko trafikorako baizik ez da erabiliko, eta guztiz desagertuko da bertatik arriskua sortzen duen trafiko astuna.

- Aurreko planetan, eta bi urtez, bidegurutzea istripu ugariko tarte gisa sailkatu zen, eta kostu gutxiko hobekuntza-lan batzuk egin ziren bertan (balizatzea, seinaleak jartzea eta abar). Horiek guztiak planifikatzean, kontuan hartu dira egiten ari diren hobekuntza integraleko lanak. “Nafarroako errepideen sareko istripu ugariko tarteak gaurkotzeko IX. Planaren” oinarrian dagoen istripuen azken azterlanak (2008ko maiatzean egina) ez du puntu hori istripu ugariko tarte gisa sailkatzen, eta, horrenbestez, ez da jarduerarik aurreikusi. Hala eta guztiz ere, azken urteetako datu estatistikoen arabera puntu hori istripu ugariko tarte gisa sailkatu ez egoteak ez du esan nahi bertan, edozein unetan, istripu larririk gerta ez daitekeenik.

- Egindako eskariari jarraituz, adierazitako itxarrote erreia balizatzeke lanak egiten dira; lan mugatuak, betiere, tarte hobetzeko garatzen ari den lan handia kontuan hartuta.

2) “2009-2016 aldirako Errepideen Plan Zuzentzailea” hasierako azterlan teknikoak prestatzeko fasean dago. Hori dela eta, ezin zaio galdetutakolari hain goiz erantzun, hasierako fase batean gaudelako.

3) Galdera horri Toki Administrazioako Departamentuak erantzun beharko dio.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Donejakue bideko autobiaiko trafikoa neurtzeko sistemari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Donejakue bideko autobiaiko trafikoa neurtzeko sistemari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Donejakue bideko autobiaiko trafikoa neurtzeko sistemari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

“Iruña-Logroño autobia egin, kontserbatu eta ustiatzeko herri lanen emakida” kontratuan ezarritakoaren arabera, sozietate emakida-hartzailea bera da trafikoa Bideko Autobiaiko lotune guztietan kontrolatzeko sistema bat ezarria duena. Gainera, bideo bidezko egiaztapen sistema bat dago, kon-

tratuko baldintzen arabera ezarritakoa. Sistema horrek aukera ematen dio administrazioari neurketa-estazioen funtzionamendua egiaztatu eta konprobatzeko.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak trafikoaren neurketa-kontrolarekin loturiko bi laguntza tekniko dauzka:

1) Taryet enpresa, “2005-2008 aldirako Nafarroako Foru Komunitateko errepideen sareko trafiko-aforoei buruzko plana” izeneko kontratuaren titularra dena. Urte anitzeko kontratua dauka.

2) Geocisa enpresa, “A-12 Autobiairen (Donejakue Bideko Autobia) ustiaketa-zuzendaritzarentzako laguntza teknikoa” izeneko kontratuaren titularra. Kontratu hori, halaber, urte anitzekoa da, eta haren bidez laguntza ematen zaio Nafarroako Gobernuko Ustiaketa-Zuzendaritzari Bideko Autobiairen emakidari dagokion guztian, aforoen kontrolan eta kontroleko egiaztapenetan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Ezkanizko NA-2100 errepedeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Ezkanizko NA-2100 errepedeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Joseba Eceolaza Latorre jaunak

galdera egin du Ezkanizko NA-2100 errepedeari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

“2002-2009 aldirako Errepedeen II. Plan Zuzendari” indardunean ez dago aurreikusita Nafarroako Foru Komunitateko Errepedeen Sarean Ezkanizko sarbideak, NA-2100 errepedekoak, egitea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak Tuterako ekohiria ezartzearen aurkako iritzia eman duen.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak Tuterako ekohiria ezartzearen aurkako iritzia eman duen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko irailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako ekohiria ezartzearen aurkako iritzia ematen duen dokumentuaren atzerapenari buruz –atzerapen horrek kostu handia ekarriko dio Tuterako Udalaren kutxari—. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Ondoko txostenean, espedienteari dagokion historiala jasotzen da. Txosten horretatik geroratze

horren arrazoi diren inguruabarrak ondoriozta daitezke.

Hala eta guztiz ere, argitu beharra daukat ezen, Lurraldearen Antolamenduko txostenaren emisio formalaren atzerapena alde batera utzita, Tuterako Udalak ederki ezagutzen zuela departamentu honek proiektuari buruz zuen iritzia.

Azkenean, errespetu guztiarekin galderaren azpian dagoen ideari egin nahi diot aurre, hau da, txostena emateko izan den atzerapenak kostu handia ekarri diola Tuterako Udalari. Ezin da horrelako baieztapenik egin, zeren eta, guk dakigula, Tuterako Udalak izan duen kostu bakarra (eta normala eta aginduzkoa den bezala, ez du urratsik egin urbanizazioaren kudeaketan eta exekuzioan aurrera egiteko) da izapidetu diren proiektuak egitea, eta kostu hori ezin saihestu daiteke izapidetzearen azken emaitza zein den alde batera utzita.

Iruñean, 2008ko irailaren 24an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-08/PES-00215 espedientearen, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, Media Luna parkeko suhiltzaileen parkearen etorkizunari eta etorkizunean Alde Zaharrak eta Bigarren Zabalguneak izanen duten suhiltzaileen zerbitzuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du Media Luna parkeko suhiltzaileen parkearen etorkizunari eta etorkizunean Alde Zaharrak eta Bigarren Zabalguneak izanen duten suhiltzaileen zerbitzuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Iruñeko Aralar kalean duen suhiltzaileen parkeari buruz (PES-220/08). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Laster jarriko da abian Nafarroako suhiltzaileen parke zentral berria Cordovillan. Esan beharra daukagu Nafarroako Gobernuak Iruñean parke bat edukitzen jarraituko duela, Cordovillakoaren osagarri, bien artean, batera eta modu koordinatuan

jokatuz, hiriburuko eta eskualdeko premiei erantzun ahal izateko.

Parke horren kokapenari dagokionez, berriz, gaur egun Aralar kalean dago, baina esan beharra dago Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua-ren Partzuergoa desegiteko eta haien zerbitzuak Nafarroako Gobernuan sartzeko bere garaian izenpetu zuten hitzarmenaren arabera, Udalak egoitza horiek beste xede batzuetarako eskatzen bazituen, bien artean beste kokapen bat erabakiko zutela, eta parke berria abian jarriko zutela, aurrekoaren orde. Parkeak, betiere, hirigunean egon beharko zuen, zerbitzua Iruñetik eta Iruñearentzat ematen jarraitzeko.

Iruñeko Udalak aipatu proposamena egiten badu, hiriko parke berrirako adosten den konponbidean bermatu beharko da egun Cordovillan erakitzen ari denarekin batera, hiriko eremu eta auzoak behar bezala artaturik egonen direla, eta bereziki Alde Zaharra eta Bigarren Zabalgunea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 25ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, N-121-A eraikitze lanetan aurreikusitako epeak, kontseilari andreak berreskurazintzat dituenak, bete ezin izateko arrazoi objektiboei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du N-121-A eraikitze lanetan aurreikusitako epeak, kontseilari andreak berreskurazintzat dituenak, bete ezin izateko arrazoi objektiboei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José M.^a Vázquez Royo jaunak galdera egin du N-121-A errepidea hobetzeko obretako epeak betetzeari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

N-121- A errepidea Igantzi eta Etxalar bitartean eta Etxalar eta Bera bitartean konpontzeko obrak

Ecay-Andueza,SL/Obrascon Huarte Lain/Ideconsa aldi baterako enpresa-elkarteari esleitu zitzaizkion 2007ko apirilaren 12an. Kontratuan ezarritako epea 2009ko martxoaren 30ean bukatzen da.

Enpresak programa xehatua aurkeztu zuen kontratuan ezarritako epeak betetzeko, baina, de facto, obrak atzeratuta daude, lau hilabete inguru hain zuzen ere, obren egungo abiada zein den ikusita. Atzerapen hori, dena den, ezin zaio osorik egotzi kontratistari.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren obra zuzendaritzak idatziz eskatu dio kontratistari kontratua zorrotz bete dezan, eta kasuan kasuko penalizazioak aplikatuko ditu, kontratuan ezarritakoarekin bat, baldin eta atzerapena baieztatzen bada. Kontratistak atzerapena gainditzeko jarrera positiboa duela egiaztatu du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 18an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Euskarabideko Aholkularitza eta Ikerketarako Zerbitzuko zuzendaria kargutik kendu izanaren arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Euskarabideko Aholkularitza eta Ikerketarako Zerbitzuko zuzendaria kargutik kendu izanaren arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Kontseilari gisa, nire egitekoa da departamentuaren lan zuzena zaintzea, Gobernuak ezarritako hizkuntza-politika garatzea eta baliabideen banaketa efizientea bermatzea. Hezkuntza kontseilariak bere lantaldeko pertsonak izendatzeko eta kargutik kentzeko erabakimena dauka, betiere lehenetsuen eta profilen arabera. Kargutik kentzearen arrazoiak Mikel Aranbururi azaldu zitzaizkion jakinarazpenaren unean.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Nafarroako Eskola Kontseiluko zuzendari Ángel Urtasun jauna kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Nafarroako Eskola Kontseiluko zuzendari Ángel Urtasun jauna kargutik kentzeko arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Kontseilari gisa, nire egitekoa da departamentuaren eta haren menpe dauden aholku-organoen funtzionamendu zuzena zaintzea, foru erkidegoan

diseinatzen diren hezkuntza politikak aplikatzeko eta ukituriko eragile sozial eta politikoen eztabaida eta parte-hartzea bideratzeko. Organo horren zuzendaritzaren profilerako eskatzen da gauzak errazteko eta negoziatzeko jokaera izatea, betiere izapideak eta deialdietan sortzen diren gomendioen onspena aldarazi gabe.

Horretarako, Hezkuntza kontseilariak zuzendaria izendatzeko edo kargutik kentzeko erabakimena dauka, kargurako helburu berak konpartitzearen ondorioz sortutako konfiantza giroaren arabera eta hauxe da horren gakoa: erabakiak hartzeko garaian eztabaida erraztea eta negoziatzea. Kargutik kentzearen arrazoiak Ángel Urtasuni azaldu zitzaizkion jakinarazpenaren unean.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Iruña-Tafalla-Castejón-Tutera eskualdeko tren zerbitzuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Iruña-Tafalla-Castejón-Tutera eskualdeko tren zerbitzuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Galderan jasotako baieztapena dela eta, Nafarroako Gobernuak azaltzen du lotura bat badagoela astelehenetan, 09:30ean, Iruña/Tafalla/Castejón/Tutera norabidean.

Renfek, operadore gisa, bere loturak, maiztasunak eta orduategiak konpainiaren politikaren,

errentagarritasunaren, ibilgailuen erabilgarritasunaren eta bidaiaren trafikoaren arabera ezartzen ditu, besteak beste.

2.- Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat du sinatua Renferekin. Horren bidez, dirulaguntza ematen dio lau zerbitzuren truke. Horien artean dago astelehenetan 09:30ean egiten dena, hain zuzen arestian aipatutakoa.

Jakin beharra dago trenean 09:30ean doazen bidaiariaren kopurua diruz laguntzen diren guttien artean bidaiari gutxien dituen dela, eta gaur arte erabiltzaileek ez dutela ordu-tegi aldaketarik edo zerbitzuen gehikuntzarik eskatu.

Hala eta guztiz ere, Renferekin hitzarmenaren jarraipen-jarduerak gauzatzeko aldizka egiten diren bileretan, departamentuak behin eta berriz azpimarratzen du gure erkidegoko trenbide-zerbitzuak hobetu egin behar direla.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 29an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Aragón ibaitik eta Villafrancako Europar Batasunaren Interese-ko Lekutik gertu dagoen arroaren kutsadura arriskuari buruz, ondoko lursailean hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Aragón ibaitik eta Villafrancako Europar Batasunaren Intereseko Lekutik gertu dagoen arroaren kutsadura arriskuari buruz, ondoko lursailean hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Aragón ibaitik eta Villafrancako Europar Batasunaren Intereseko Lekutik gertu dagoen arroaren kutsadura arriskuari buruz. Hona Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

– Aragón ibaitik gertu dagoen arroaren kutsadura arriskua arroaren inguruan paper-lohiak pilatzeagatik gerta zatekeen, baldin eta euri ugari bota eta urak materialaren zati bat herrestan eraman izan balu aipatu arrora. Arriskua desagertu zen materiala lurzorian barreiatu zenean gehigarri organiko gisa erabiltzeko.

– 7. poligonoko 24. lurzatitik, non metaturik baitzegoen aipatu materiala, eta Escudera putzura artean hustuketarako ubide bat dago. Horrenbestez, urak gainazaleko materialak herrestan eraman izan balitu, eremu hori, zeina BIL moduan sailkatu baitago, ez zatekeen ukituko. Kutsadura lur azpitik hedatzeko arriskua oso ere txikia da, lurraldearen topografia dela eta.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 26an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Villafrancako hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz ireki diren zehapen-espeditenteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Villafrancako hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz ireki diren zehapen-espeditenteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Villafrancako hondakin organikoak kontrolik gabe botatzearen ondorioz ireki diren zehapen-espeditenteei buruz (PES 228/08). Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ikerketaren atariko fasea bukatu dago, eta, orain, zehapen espeditenteei abiaraziko dira, ustez administrazio arloko arau-haustek egin

dituztela ezarri den arduradunen aurka, atera diren ondoko ondorioekin bat:

– Materiala ekoitzi duen kudeatzaileak, Funesko Tecnología Industrial del Reciclado I.B. enpresak, izan omen duen erantzukizuna, 824/2005 Errege Dekretuak eta kudeatzaileak baimendutako baldintzei buruzkoa eta materialaren baheketari, iraulketari eta egonkortzeari buruzkoa.

– Paper-lohiaren garraiolariak, Transportes Letamendía, S.L. enpresak, izan omen duen erantzukizuna, Hondakinei buruzko 10/1998 Legeari buruzkoa, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren garraiolarien erregistroan izena emateari dagokionez, hondakinak kudeatzeko eta lantzeko baimenari dagokionez eta materiala kudeatzaile baimendu bati ez emateari dagokionez.

– Materiala aplikatu duen nekazariak izan omen duen erantzukizuna, materialaren zati bat baimenik ez duen kudeatzaile bati erosteagatik.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 16an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Cascanteko kultur etxea eraikitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Cascanteko kultur etxea eraikitzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Cascanteko kultur etxea eraikitzeare-

kin zerikusia duten zenbait gairi buruz (PES-234/08). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Departamentu honetan ez dago Cascanteko eremu horri buruzko espedienterik; horrenbestez, esan daiteke ingurumenaren arloko organo eskudunak ez duela aldeko txostenik eman. Ez dakigu Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, zeina arroaz arduratzen den erakundea baita, egindako jarduerarako baimenik eman duen.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailaren 16an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Medea clusterraren deialdian Nafarroako proiektuek parte hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Medea clusterraren deialdian Nafarroako proiektuek parte hartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Amanda Acedo Suberbiola andreak informazioa eskatu du Medea clusterraren deialdian Nafarroako proiektuek parte hartzeari buruz (PES-00251). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Laguntzak kudeatzen dituen organismoa Estatu denez, administrazio horixe da eskuduna eta bera da eskatutako informazioa duena.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, IKTen Hiria proiektuaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du IKTen Hiria proiektuaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo

Suberbiola andreak informazioa eskatu du IKTen Hiria proiektuaren egungo egoerari buruz (PES-00252). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

2007an, IKTen hiri bat Nafarroako Foru Komunitatean ezarri eta garatzeari buruzko azterlan bat egin zen. Gaur egun, proiektu hori Nafarroako Gobernuaren 2012rako Inbertsio Planean dago, eta Nasuinsa da haren arduraduna.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Nafarroako enpresek eduki digitalen garapenarekin lotuta aurkeztu dituzten proiektuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Nafarroako enpresek eduki digitalen garapenarekin lotuta aurkeztu dituzten proiektuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak informazioa eskatu du eduki digitalak garatzeko proiektuak direla-eta enpresa txiki eta ertainek aurkeztu dituzten eskabideei buruz (PES-00253). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Dirudienez, galdera Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak urtero egiten duen deialdiari buruzkoa da. Bada, departamentu honek ez du horretan eskumenik.

Nafarroako Gobernuak laguntzen eta dirulaguntzen deialdi bat egiten du enpresa txiki eta ertainentzat, mikroenpresentzat eta langile autonomoentzat, baina itxi gabe dago oraindik. Hardwarea, softwarea eta aholku-, prestakuntza- eta instalazio-zerbitzuak laguntzen dira diruz, bai eta Interneteko sarbidea eta web garapenak ere.

Modu osagarrian, "Erantzun Digitala" programa gauzatzen ari gara. Haren barruan, proiektu teknologiko espezializatueterako eta azterlan eta proiektu sektorialetarako analisi-, aholku-, zabalpen-, prestakuntza- eta garapen-jarduerak egiten dira.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Industria Ministerioak antolatutako finantzaketaren babesean eduki digitalen proiektuetarako laguntzak eskatu dituzten irabazi asmorik gabeko entitateei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Industria Ministerioak antolatutako finantzaketaren babesean eduki digitalen proiektuetarako laguntzak eskatu dituzten irabazi asmorik gabeko entitateei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak informazioa eskatu du eduki digitalak garatzeko proiektuak direla-eta irabazi asmorik gabeko entitateek aurkeztu dituzten eskabideei buruz (PES-00254). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

PES-00253 galderari erantzun diogun bezala, deialdi hori ministerioak egiten du nazio mailan, eta, horrenbestez, ez du Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu departamentuak izapidetzen.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak bere asmoak aldatu behar dituen, IKT maileguei, gazteentzako eta unibertsitarioentzako maileguei eta herritartasun digitalerako maileguei dagokienez.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak bere asmoak aldatu behar dituen, IKT maileguei, gazteentzako eta unibertsitarioentzako maileguei eta herritartasun digitalerako maileguei dagokienez.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak informazioa eskatu du Avanza planeko maileguen baldintzei buruz (PES-00255).

Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren Ierroa Industria Ministerioaren Ierroaren osagarria da, eta esparru desberdinetarako laguntza-deialdiak egiten dira.

Herritartasun digitalari dagokionez, lantzen deialdi bat egin da, Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztiek Interneteko banda zabala izateko aukera eduki dezaten. Gainera, beste deialdi bat egin da toki entitateentzat eta hirugarren adinekoren eta emakumeen elkarteentzat, ekipamenduen eta Interneteko konexioaren erosketa diruz laguntzeko, halako moduan non herritarrei teknologia berrietarako sarbide libre eta doakoa hurbildu eta erraztuko baitzaie.

Enpresa txiki eta ertainen, mikroenpresen eta langile autonomoen kasuan, dirulaguntzen deialdi bat badago, jada PES-00253 galderaren erantzunean aipatu duguna. Enpresa txiki eta ertainei, mikroenpresei eta langile autonomoei zuzenduta

dago, eta itxi gabe dago oraindik. Hardwarea, softwarea eta aholku-, prestakuntza- eta instalazio-zerbitzuak laguntzen dira diruz, bai eta Interneteko sarbidea eta web garapenak ere.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, irabazi asmorik gabeko entitateek, eduki digitalen azpiprograman, eta toki entitateek ezagutza-zentroak sortzeko aurkeztutako eskaerei eta horien xedeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du irabazi asmorik gabeko entitateek, eduki digitalen azpiprograman, eta toki entitateek ezagutza-zentroak sortzeko aurkeztutako eskaerei eta horien xedeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak informazioa eskatu du ezagutza-zentroak sortzeko irabazi asmorik gabeko entitateek aurkeztu dituzten eskabideei buruz (PES-00256). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

PES-00253 eta PES-00254 galderen erantzunean bezala, deialdia Ministerioak egiten du eta, horrenbestez, ez daukagu hari buruzko daturik.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Iberdrolak Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen ematen duen zerbitzuaren kalitateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Iberdrolak Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen ematen duen zerbitzuaren kalitateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Iberdrolak Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen ematen duen zerbitzuaren kalitateari buruz buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Iberdrola DESAU enpresa banatzaileak baliabide egokiak dauzka aipatu esparruan 30 eta 13,2 kWko hornidura emateko, baina batzuetan, modu puntualean, zerbitzu-mozketak gertatu dira.

Joan den uztailaren 30ean, hornidura 9:17an eten zen, Oiartzun-Almandoz 30 kWko linean matxura bat izan zelako. Irun-Oronoz 30 kWko lineako programaturiko geraldin batekin batera gertatu zenez, ezin izan zen hornidura berreskuratu harik eta matxura aurkitu eta isolatu arte, eta sareko konfigurazioan zenbait maniobra egin arte, merkatuari gradualki konponbidea emateko Altzo-Leitza 2 lineatik. Zerbitzua 11:30ean berrabiatu zen.

Oiartzun-Almandoz lineako matxuraren arrazoa 9040 zenbakiko euskarriko fase batean zubi bat moztu izana izan zen; izan ere, linea horrek gehiegizko zamari eutsi behar zion Gipuzkoako Aldundia Enderlatsan egiten ari zen obretan, ekainaren 3an, luizi bat izan ondoren. Obra horiek N-121 errepidea zabalteari zegozkion.

Luiziak bete-betean eragin zuen Irun-Oronoz lineako euskarri batean, eta lineako beste euskarri batzuk ere egoera txarrean geratu ziren. Horren ondorioz, Irun-Oronoz linearen zama Oiartzun-Almandoz lineara aldatu beha izan zen; Enderlatsatik Berako STR-ra ere bai, bai eta Lesakako, Etxalarko, Legasako eta partikularrentzako goi tentsioko hornidura guztietara ere.

Nafarroako Gobernuak etengabe jarduten du lanean Iberdrolarekin Nafarroako Foru Komunitateen biztanleentzako banaketa elektrikoko zerbitzua behar den bezala egin dadin, kopuruaren eta kalitatearen aldetik, betiere arloan indarra duten legeak betez eta zerbitzua hobea ekarriko duten mantentze jarduerak eta bestelako jarduera berriak garatuz.

Hori dela eta, Baztan-Bidasoako aldean datoren hiletan hornidura elektrikoko sarea zabalduko da, eta beste bi dotazio eginen dira.

Obra elektriko handiak egiten ari dira eskualde osoari kalitatezko zerbitzua emateko. Izan ere, 132 kW-ko azpiegitura berri bateko sistema elektrikoa ezartzen ari da, beste lerro batekin; eta, bigarrenik, STR Bidasoa azpi estazioa eraikitzen ari da, 132/30/12,2 kW-koa, Doneztebeko dermioan.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, “Larraine-Villar de Arnedo” gasbidearen Irunberriko konpresio-estaziorako Enpresa zuzendari nagusiak emandako apirilaren 2ko 1173/2008 Ebazpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du “Larraine-Villar de Arnedo” gasbidearen Irunberriko konpresio-estaziorako Enpresa zuzendari nagusiak emandako apirilaren 2ko 1173/2008 Ebazpenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du “Larraine-Villar de Arnedo” gasbidearen Irunberriko konpresio-estaziorako Enpresa zuzendari nagusiak emandako apirilaren 2ko 1173/2008 Ebazpenari buruzkoa. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Enagas, S.A. garraio enpresak “Larraine-Villar de Arnedo” gasbidearen nazioarteko garraioaren ahalmena handitu beharra duenez, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak baimena eman zion hasiera batez Artiedan –Urraulbeitiko udalerrria– konpresio-estazio bat jartzeko.

Gero, kokalekuari buruzko arazoak zirela eta, Enagas, S.A.k beharrezkotzat jo zuen estazio hori beste leku batean, baldintza guztiak betetzen zuten beste leku batean, jartzea. Gaur egun obrak dauden lekua hautatu zen, Irunberriko udalerrien barruan. Obrak oso aurreratuta daude.

Foru Komunitatearen eskumena da aipatu instalazioetarako hargune elektriko bat jartzeko baimena ematea eta onura publikokoa dela deklaratzeko. Halatan, konpresio-instalazioari hornidura elektrikoa emateko administrazio-izapidearen zati bat baino ez da Enpresa zuzendari nagusiaren apirilaren 2ko 1173/2008 Ebazpena.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, satellite bidezko interneteko banda zabalak Nafarroa osoan estaldura izateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du satellite bidezko interneteko banda zabalak Nafarroa osoan estaldura izateari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Satellite bidezko interneteko banda zabalaren estaldurari buruz (PES-00229). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

- 1. galderaren erantzuna: Apirilaren 9ko 1220/2008 Ebazpenari buruz, dirulaguntzen deialdi bat onetsi zen 2008. urtean banda zabaleko Interneteko konexioa diruz laguntzeko. Deialdi hori

apirilaren 23ko 51. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Aurrerago, ekainean, deialdi hori aldatu zen, bertan satellite bidezko konexioetarako laguntzei toki egiteko, hain zuzen ere ADSL edo WIMAX estaldurarik ez duten partikular guztientzat.

Aurreko atalari dagokionez, 2008ko uztailaren 4an foru erkidegoko udalei igorritako gutuna transkribatzen dugu hemen:

“Jakirik foru erkidegoko eskualde batzuetan banda zabala ezartzeko zailtasun handiak daudela, haietara kable bidezko estaldura tradizionalak (ADSL, modem-kablea) nahiz irrati bidezkoak (Wimax) ez baitira iristen, eta estaldurarik ez duten nahiz estaldura partziala duten eskualde horietako herritarrei konponbide bat emateko, Nafarroako Gobernuak Internetetarako banda zabaleko konexioetarako dirulaguntzen deialdia aldatu du, hartan satellite bidezko konexioei tokia egiteko”.

2008ko ekainaren 16ko 74. NAO, Enpresa Zuzendari Nagusiaren ekainaren 4ko 1676/2008 Ebazpena argitaratu zen. Haren bidez, Interneteko banda zabaleko konexiorako dirulaguntzen 2008rako deialdia aldatzen da, eta deialdi horren onuradun gisa sartzan dira satellite bidezko aipatu zerbitzura konektatzen diren herritarrak.

Laburbilduz, honakoak dira satellite bidezko konexiorako laguntza berri horren ezaugarri nagusiak:

- Diruz laguntzekoa den jardura: Interneteko satellite bidezko konexioa (bestelako estaldurarik ez dagoen tokietan).

- Epea: 2008ko martxoaren 10etik abenduaren 31ra bitarte, biak barne, egindako konexioei emanen zaie dirulaguntza, edo dirulaguntzarako aurreikusi den aurrekontuko diru-kopurua bukatu arte, lehenago amaituz gero.

- Etxebizitza bakoitzeko konexio bat baizik ez da diruz lagunduko.

- Telefoniako operadoreak: onuradunak askatasun osoa izanen du nahi duen operadorea hautatzeko Nafarroako Gobernuarekin hitzarmena sinatu dutenen artean: Iberbanda, ONO eta Telefónica.

- Laguntzaren zenbatekoa: satellite bidezko konexioen kasuan, 150 eurokoa da dirulaguntza, altarengatik BEZa barne dela. 2008ko azaroaren

30etik fakturatzen diren hileko ordainketengatik, berriz, 20 euro, BEZa barne, ordainduko dira.

Gure ustez, dirulaguntzen deialdi hau zure interesekoa da, eta nahi genuke zure herriko biztanleei helaraztea, haietakoren batek satellite bidezko konexioa eskatzeko interesa izan eta aipatu laguntzak eskatu nahi baditu ere.

Bide batez, jakinarazi nahi dizuegu dirulaguntzen deialdi berri bat prestatzen ari garela, oraingoan toki entitate eta elkartei zuzenduak, Internetetarako sarbide publikoko zentroak ezartzeko. Deialdi horretan, honakoak lagunduko dira diruz: ordenagailuak, inprimagailuak eta eskanerrak, bai eta ekipamendua, konexioak egitekoak eta Internetetako altak. Betiere horiek guztiak udaleko biztanleei doan eskaintzeko gune batean jarri behar dira. Gainera, konexio-kuotak diruz lagunduko dira soilik gaur egun zabaldua dagoen sarearekin ADSL, modem-kablea edo LMDS/Wimax-en estaldurarik ez duten toki entitate eta elkarten kasuan.

- 2. galderaren erantzuna: Bai, Nafarroako Gobernuak lurreko telebista digitalaren estaldura jarriko zuela agindu zuenean, Nafarroako herritarren %100ez ari zen.

- 3. galderaren erantzuna: 2008., 2009. eta 2010. urteetarako, Nafarroako Gobernuak aurreikusia du estaldura % 99,45eraino zabaltzea, egun dauden telekomunikazio zentroen ekipamenduen bitartez.

Nafarroako Gobernuak, Opnatelek eta Retevisión I.S.A.k lortutako akordioari esker, zentro horien estaldura eremutik kanpo geratzen diren herritarrak (% 0,55) aukera izanen du telebista digitalaren seinalea satellite bidez jasotzeko, betiere lurreko telebista digital nazionalako emakida-hartzaileek horretarako baimena ematen badute. Horretarako, satellite-seinalearen hartzaileak eskuratuko zaizkie ukituei.

Hala eta guztiz ere, hedapena osatu eta jaulkitzaile bakoitzaren benetako estaldura ezagutzen joaten den neurrian, telekomunikazio zentro berrien bat eraikitzeko bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertuko da.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak jakinarazi ote zien enpresei, toki entitateei eta irabazi asmorik gabeko entitateei IKTak landa eremuan sartzeko deialdi bat dagoela.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak jakinarazi ote zien enpresei, toki entitateei eta irabazi asmorik gabeko entitateei IKTak landa eremuan sartzeko deialdi bat dagoela.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak informazioa eskatu du herrietan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ahal izateari buruz (PES-00257). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Gure ustez, galdera ITC/464/2008 aginduaren arabeko deialdiei buruzkoa da. Agindu hori Estatuko administrazioaren eskumena eta erantzukizuna da guztiz.

Horri dagokionez, adierazi beharra daukagu Nafarroako Gobernuak ministerioarekin batera egiten duela da Azpiegituren "Avanza" Azpi Programan, hain zuzen ere bi jardun-lerrotan:

- Banda zabala eta bestelako telekomunikazio zerbitzuak garatzea landa inguruneetan eta ingurune isolatuetan.
- Herrietan gaitasun handiko sareak hedatzea.

Azpi programako gainerako lerroetan ez dugu parte hartu. Nafarroako Gobernuaren zuzeneko eskumena diren programetan, IKTak bultzatzeko jardueren finantzaketa Avanza Planean eta Nafarroan Informazioaren Gizartea Sustatzeko Planean sartzen da, oro har.

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Nafarroako Gobernuak ezarritako gastu publikoaren austeritate-neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak ezarritako gastu publikoaren austeritate-neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du eta idatzizko erantzuna eskatu, Nafarroako Gobernuak ezarritako gastu publikoaren austeritate-neurriei buruz (PES-00261). Hona Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ez da protokolo gasturik aurreikusten departamentu bakoitzerako. Aitzitik, Nafarroako Parlamentuko aurrekontuetan gertatzen den bezala, kontusail orokor bat dago gobernukideek parte hartzen duten pro-

tokoloko ekitaldietarako. Gobernuak ez dute dietarik kobratzen haietan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betetzeko.

Iruñean, 2008ko irailean

Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeetarako Harremanetarako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, “Ikastetxe berriak eraikitzea eta egokitzapen obrak egitea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du “Ikastetxe berriak eraikitzea eta egokitzapen obrak egitea” izeneko kontusailaren betetze-mailari eta aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 20ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

410001-41810-7609-325103 “Ikastetxe berriak eraikitzea eta ikastetxeak egokitzeko lanak” kontusailak 14.045.000,00 euro dauzka. Hona betetze faseak:

Iruñean, 2008ko urriaren 1ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

– 6. kapitulua. Kontusaila: 410001 -41810 -6020 -325100 “Ikastetxe berriak eraikitzea eta ikastetxeak egokitzeko lanak”

HERRIA	IKASTETXEA ETA LANA	EXEKUZIO FASEA	2008ko AURREKONTUA
BERRIOZAR	BERRIOZAR BHIa Ikastetxe berria (giltza eskura), 4 lerro, DBH eta Batxilergoko 2.a Aurrekontua, guztira: 5.627.300 € (2008-09)	Esleitzeko dago	734.598,00
BURLATA	ASKATASUNA BHIa Modulu aurrefabrikatuak 4 ikasgela	Amitua	223.799,36
LIZARRA	TIERRA ESTELLA BHIa DBHrako eta Batxilergorako eraikin berria Proiektua + 1. fasea (2008) Aurrekontua, guztira: 7.201.412 € (2008-09-10)	Egiten ari da. Urrian bukatuko da.	455.057,30
UHARTE	UHARTE BHIa Sukaldea eta ondokoak zaharberritzea	Egiten ari da. Irailaren 15ean bukatuko da.	171.697,82
LEKAROZ	LEKAROZ BHIa Teilatuak aldatzea	Egiten ari da. Irailaren 15ean bukatuko da.	277.249,82
IRUÑA	DONIBANE BHIa ENAI/INAVen egoitza zaharberritzea	Egiten ari da. Urrian bukatuko da.	723.348,05
IRUÑA	DANTZA ESKOLA. José Vila ikastetxe publikoko 2. solairua Dantza Eskola izateko egokitzea	Egiten ari da. Urrian bukatuko da.	642.077,00
IRUÑA	PEDRO DE URSUA BHIa. Ikastetxe berria (DBHko 8 lerro). Bukatua (2006-07-08)	Amitua	1.074.624,66
IRUÑA	PEDRO DE URSUA BHIa. Batxilergoko 4 lerroko handitzea. Aurrekontua, guztira: 1.260.985 € (2008-09-10)	Proiektua egina dago	100.656,00

HERRIA	IKASTETXEA ETA LANA	EXEKUZIO FASEA	2008ko AURREKONTUA
SAN ADRIÁN	EGA BH1a 2 gela gehiago egitea + igogailua jartzea	Amaitua	128.371,42
TUTERA	VALLE DEL EBRO BH1a. Handitzea. 2. fasea. Aurrekontua, guztira: 3.400.000 € (2008-09-10)	Obra esleitura	532.328,92
ZIZUR NAGUSIA	CATALINA DE FOIX Ipa. Ikastetxe berria. Prezioen berrikuspena (2007an eginiko lana)	Amaitua	206.344,83
ZIZUR NAGUSIA	ZIZUR BH1a Institutua handitzea DBHko bi lerro eta Batxilergoko lerro bat gehiago hartzeko. Aurrekontua, guztira: 2.552.087 € (2008-09)	Proiektua esleitzeko dago	63.220,00
ZUDAIRI	AMÉSCOAS Ipa Galdaren aretoa berritzea	Egiten ari da. Urrian bukatu da.	108.087,91
BESTELAKO LANAK	LAN TXIKIAK		583.550,18
6. KAPITULUA, GUZTIRA			6.025.011,27

– 7. kapitulua. 410001-41810-7609-325103 kontusaila: “Ikastetxe berriak eraikitzea eta ikastetxeak egokitzeko lanak”

HERRIA	IKASTETXEA ETA LANA	EXEKUZIO FASEA	2008ko AURREKONTUA
ALMANDOZ	ALMANDOZ Ipa Ikastetxe berria	Amaitua	314.216,81
ANTSOAIN	EZKABA Ipa Udalarekiko hitzarmena. Kirol pista estaltzea	Egiten ari da.	720.000,00
BARASOAIN	MARTÍN AZPILICUETA Ipa Udalarekiko hitzarmena. Ikastetxe publikoa handitzea	Esleitzeko dago	30.000,00
BERRIOZAR	MENDIALDEA Ipa Modulu aurrefabrikatuak (8 ikasgela)	Amaitua	406.620,63
ZARRAKAZTELU	Ipa / DBH1a. DBH1a handitzea	Egiten ari da. Azaroaren 30ean amait.	437.147,48
CASTEJÓN	DOS DE MAYO Ipa Udalarekiko hitzarmena. DBH1a zabaltzea	Hasteko dago	30.000,00
CINTRUÉNIGO	Ipa. Udalarekiko hitzarmena. Ikastetxe berria. 3-6 urte.	Esleitzeko fasean	511.600,00
CINTRUÉNIGO	OTERO II Ipa. Handitzea.. Aurrekontua, guztira: 839.876 € (2008-09)	Esleitzeko fasean	314.800,29
LIZARRA	REMONTIVAL Ipa Modulu aurrefabrikatuak (2 ikasgela)	Amaitua	95.610,68
LARRAGA	SAN MIGUEL DE LARRAGA Ipa Udalarekiko hitzarmena. Ikastetxe publikoa handitzea	Egiten ari da.	20.000,00
MILAGRO	Ipa. Haur hezkuntzako edo lehen hezkuntzako ikastetxe berria (3 lerro).	Amaitua	1.507.826,34
MUTILOABEITI	SAN PEDRO Ipa Ipa handitzea eta berritzea	Egiten ari da. Errolda (abenduak 31)	729.646,43
ERRIBERRI	PRINCIPE DE VIANA Ipa Udalarekiko hitzarmena. Ikastetxe publikoa handitzea	Egiten ari da. Abenduak 31n amait.	780.000,00
OTEITZA	SAN SALVADOR Ipa. Udalarekiko hitzarmena. Ikastetxe publikoa handitzea	Egiten ari da. Abenduak 31n amaituko da.	158.043,00
IRUÑA	ARTURO KANPION Ipa. Modulu aurrefabrikatuak (4 ikasgela)	Amaitua	221.379,20
IRUÑA	ARTURO KANPION Ipa. Barnealdea berritzeko lanak	Amaitua	154.366,79

HERRIA	IKASTETXEA ETA LANA	EXEKUZIO FASEA	2008ko AURREKONTUA
IRUÑA	BUZTINTXURI IPa. Haur hezkuntzako edo lehen hezkuntzako ikastetxe berria (3 lerro). Aurrekontua, guztira: 4.217.842,44 € (09.08.07)	Egiten ari da. Otsailaren 9rako amaituko da.	3.048.615,69
IRUÑA	CARDENAL ILUNDAIN IPa Udalarekiko hitzarmena. Patioko kirol pista estaltzea	Egiten ari da.	537.415,50
IRUÑA	CARDENAL ILUNDAIN IPa Modulu aurrefabrikatuak (Ikastetxeko jantokia)	Amaitua	150.000,00
IRUÑA	DOÑA MAYOR IPa. Haur hezkuntzako edo lehen hezkuntzako ikastetxe berria (3 lerro). Aurrekontua, guztira: 4.046.448,22 € (2007-08)	Amaitua	2.588.856,87
IRUÑA	SAN FRANCISCO IPa. Udalarekiko hitzarmena. Ikastetxe publiko egokitzea.	Egiten ari da.	15.000,00
GARES	PUENTE LA REINA IPa.Habilitar Sala Usos Múltiples del C.P.	Amaitua	147.828,11
RIBAFORADA	SAN BARTOLOMÉ IPa Udalarekiko hitzarmena. Ikastetxe publiko handitzea	Egiten ari da. Abenduaren 31n amait.	250.000,00
TUTERA	TORRE MONREAL IPa Handitzea eta birmoldatzea	Egiten ari da. Abenduaren 31n amait.	857.219,00
BESTELAKO LANAK	LAN TXIKIAK		205.780,70
	7. KAPITULUA, GUZTIRA		14.231.973,52

Galdera, ikurren legearen aplikazioaren ondorioz udaletara bidalitako errekerimenduei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du ikurren legearen aplikazioaren ondorioz udaletara bidalitako errekerimenduei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera

egin du Sinboloei buruzko Legearen aplikazioari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Legegintzaldi honetan zehar departamentu honek ez du jaso ez idazkirik ez salaketarik ez komunikaziorik ere, Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legeko xedapen iragankorra betez sinbolo frankistak kentzeari buruz. Horrenbestez, departamentu honek ez du gai horri buruzko errekerimendurik egin.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Toki Administrazioako Departamentuko kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka eraikitzeke lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka eraikitzeke lanei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du, jakiteko ea zertan diren Nafarroako Liburutegia eta Filmoteka eraikitzeke lanak 2008ko uztailearen amaiera aldean. Hona Vianako

Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Galderari erantzuteko unean, 2008ko urrian, bukatzen ari dira eraikina osatzen duten blokeen hormigoizko egiturako obrak (eraikinaren egitura sei blokek osatzen dute, txandaka egin behar direnak). Lan horiek eraikinaren bigarren solairura iritsi dira.

Gaur arte ondoko lanak egin dira: indusketa eta lurrak mugitzea, zimenduak eta eustormak jartztea, saneamendu eta drainatze harguneak barne, zimendu eta murruei loturik baitaude.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko zer kontusailetan izanen duen eragina aurrekontuen murrizketak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko zer kontusailetan izanen duen eragina aurrekontuen murrizketak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko Kultura eta Turismo Departamentuko zer kontusailetan izanen duen eragina Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan Miranda jaunak iragarritako 150 milioiko murrizketak. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Aurreneko neurri gisa, aurreikusita daukagu II. kapituluko gastuari eustea (gastu arruntak ondusun eta zerbitzuetan), kontusail batzuetarako kre-

dituetarako aldi baterako erreserba aplikatuz, 1.985.271,61 eurora iritsi arte. Beraz, aurreikusita dago erreserba hori aplikatzea kontusail askotarako. Gehienak denboran geroratu daitezkeen lanak dira; esate baterako, bulegoko material suntsikorra, publizitatea, propaganda, azterlanak, auditoriak, azoketara joateko gastuak, argazki- nahiz agiri-funtsen digitalizazioa eta deskribapena, kontserbazio-materialak enkargatzea (artxiboetarako kutxak, esate baterako), eta egokitu diren beste gastu batzuk (zaintza- eta segurtasun-zerbitzuak, geure egoitzak hobetzea, mantentzea, altzariak eta ekipamendua). Horiek, izan ere, aurrerago egin beharko dira.

IV. kapituluan (transferentzia arruntak eta dirulaguntzak), aldi baterako erreserba 1.043.908 eurokoa da. Izapidetu eta ebatzitako dirulaguntzei dagozkien kontusailei aplikatu zaie. Haietan, izan ere, ez da zenbateko osoa eman, zeren eta behin deialdiko baldintza guztiak betetzen zituzten eskari guztiei erantzun eta ondoren ere, dirua sobra geratu baitzen. Halaber, hemen beste kontusail batzuk sartu dira, departamentuak planteaturiko programei zegozkienak eta kredituko aldi baterako erreserbak erabiltzeko premia iragarri zen unean oraindik ere hasi gabe zeudenak; izan ere, egungo koiuntura ikusita eta ulertuta proposamen berri-

tzaileak direla, geroratu egingen da haien abian jaretzea.

VI. kapituluan (Inbertsio Errealak), aldi baterako erreserba 2.192.408 eurokoa da, eta aplikatu zaie bai izapidetzen ari diren obren lizitazioetako bajei, bai jada eginiko inbertsioen edo egiteko dauden –eta geroratu daitezkeen– inbertsioen gerakinei dagozkien kontusail ugariri ere.

VII. kapituluan (Kapital Transferentziak), aldi baterako erreserba 2.165.000 eurokoa da eta deialdia, norgehiagokan, ebatzitako dirulaguntzei dagozkien kontusailetan aplikatu izan da, eman ez den zatian; esate baterako Kultur etxeen eta beste gune batzuen eraikuntza eta ekipamendua (1.050.000). Hau da, izapidetu eta ebatzitako dirulaguntzei dagozkien kontusaileetan aplikatu da, hain zuzen ere zenbateko osoa eman ez den kasuetan, zeren eta behin deialdikok baldintza guztiak betetzen zituzten eskabide guztiei baiezkoa eman ondoren dirua sobratu baita.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko urriaren 6an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Nafarroako Antzerki Sareari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Antzerki Sareari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko irailaren 15eko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko urriaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du jakiteko Ekonomia kontseilari Miranda jaunak 2008rako iragarritako aurrekontu-murrizketak

eragina izanen duen Nafarroako Antzerki Sarea sorreran eta zer zuzkidura izanen duen ekimen horrek 2008kok kontu publikoetan. Hona Vianako Printzea Erakundea-Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Antzerkien sarea proiektu zail bat da, inguru desberdinak hartzen dituena. Hori dela eta, departamentuak aldeztu aurretik kontsulta egin beharra die hartan inplikaturiko sektoreei. Hori berarekin ekartzen ari da sare hau abian jartzeko baldintza bat egotea: prozesu honetan inplikaturiko erakunde, talde eta entitateen erantzuna eta adostasuna.

Azken urte honetan, Antzerki Sarea ezartzeko balizko formulak buruzko azterlanak egiteko eskatu zaie profesionalen talde batzuei. Talde horien lana, azken urteetan, mantsotu egin da, besteak beste sarea garatzeko prozesuan parte hartzeko

asmoa adierazi duten kolektiboen kopuruaren handiagatik. Horrek berarekin ekarri du proiektua abian jartzeko denbora gehiago behar izatea.

Une hauetan, bi lan garrantzitsuenak egiten ari dira sare hau aurrera eraman ahal izateko. Hona-koak dira: Ikei enpresari Nafarroako arte eszenikoen egoerari buruzko azterlan bat enkargatu zitzaion, eta Global Servicios Culturales enpresari, berriz, Nafarroako Espazio Eszenikoen katalogo bat egiteko eskatu zitzaion. Gainera, departamentua, jada, behar diren kudeaketak egiten ari da talde eta entitate artistikoen katalogo bat egiteko, eta Sarerako laguntzen deialdirako oinarrien zirri-borro bat prestatzen hasia da.

Bestalde, departamentua Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren erantzunaren zain dago; izan ere, udalak eta toki entitateak funtsezko atal bat dira Sarearen etorkizuneko garapenean. Uztailean Federazioari proiektuari buruzko dokumentazioa bidali zitzaion, baina, oraindik ere horri buruz egiten dituen zehaztapenak jasotzeko zain gaude.

Federazioak bere gomendioak formalizatzen dituen unean eta departamentuak horiek aztertzen

dituenean, amaierako dokumentu bat ezarri ahal-ko da, eta dokumentu horrek aukera emanen digu Nafarroako arte eszenikoen garapenerako hain funtsezkoa den proiektu hau abian jartzeko.

Behin prozesu hori guztia bukatzen denean eta dokumentu hori eta hura garatzeko tresnak eskura ditugunean (katalogoak, deialdia...), xede horretarako kontusaila exekutatu ahalko da, eta behin exekutatu ondoren modu eztabaidaezinean jakin ahalko dugu haren zein zati egonen den 2008ko kredituaren aldi baterako erreserbaren pean. Ordu-ra arte, ezin izanen diogu galdera horri erantzun.

Galderaren bigarren enuntziatuari dagokionez, kontusailak 625.000 euro izanen ditu, eta honakoa izanen da: A20002 A2500 4609 335103 "Arte eszenikoen sustapena".

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón